

MERKATU SEGMENTUA

1.1 NORI ESKAINIKO DIEGU?

SilenRoom espazioen akustika hobetzeko soluzio berritzailea da, ikasgelak, bulegoak eta etxebizitzak barne, zaratak kontzentrazioan eta produktibitatean eragiten dituen kalteak murrizteko. Produktibitatearen galerak eta ikasketa-arazoak frogatuta daudenez, gure irtenbidea beharrezkoa eta eraginkorra da eguneroko bizitzan, bai hezkuntza-sektorean, bai enpresa eta etxebizitza testuinguruetan.



1.2 ZERGATIK ESKAINIKO DIEGU ?

Hezkuntza da gure merkatu estrategiko sendoena, zaratak eragiten dituen kalteak frogatuta daudelako eta erakundeek hobekuntza akustikoak ezartzeko aurrekontu propioak dituztelako.

Lehenik eta behin, Verdú Morenok egindako inkestari begira ikus dezakegu nola klaseetan OMS-k gomendatzen duena baino dezibelio (dB) gehiago dauden. Esate baterako, Verdú Moreno (2022) ikerketak Espainiako IES Los Albares institutuan egindako neurketen arabera, zarata-mailak honako hauek izan ziren: klase-orduetan **72 dB, 79 dB eta 69 dB** erregistratu ziren, eta atsedendaldietan **90 dB**-eko gorena neurtu zen, hau da, instituto honetan oso db altuak ikasleak ondo kontzentratzeko izan ere, OMS-ren arabera, ikasgeletan eduki behar den dB kantitatea **35- 50 dB** artean egon behar da, ikasleak ikas egoera egokia edukitzeko.

Era berean, dB altuek eragin kaltegarriak ekar diezazkiekete ikasleei. Verdú egindako inkestan ere ageri diren ikasleei egindako galderek hori berresten dute. Lehenik eta behin, dB altuek eragiten dieten galdetu zitzaizen, eta honako hauek izan ziren erantzunak: **%53k** dio batzuetan erraz distraitzen dela, **%28k** erraz distraitzen dela, eta **%19k** ez dela erraz distraitzen. Hau da, **%81ek** kontzentrazio-arazoak adierazten dituzte. Erantzun dutenen artean, **%61** hobeto kontzentratzen da etxean, **%19** ikastetxean, eta beste **%19ri** berdin zaio. Datu hauek garbi uzten dute: **ikasgelako zaratak zuzenean murrizten du errendimendua**.

Horretaz gain, ikastetxe batean memoria-proba bat egin zuten, eta ikasle desberdinek hitzak memorizatze behar zuten denbora neurtu zuten zarata mota ezberdinen aurrean. Hauek izan ziren erantzunak: **65 dB**-ko musika lasaiarekin **43 s**, **67 dB**-ko kale-zaratapean **44,29 s** eta **68-70 dB**-ko musika komertzialarekin **48,21 s**. Ondorio modura, esan dezakegu zarata-maila altuagoetan ikasleek **%20-25 denbora gehiago** behar dutela informazioa gogoratzeko.

Bukatzeko, Hezkuntza-sektoreak Espainian **28.000 hezkuntza-zentro, 9.000 institutu, 3.000 Lanbide Heziketa zentro eta 84 unibertsitate** biltzen ditu; Euskadin, berriz, **715 hezkuntza-zentro, 161 institutu eta 5 unibertsitate daude**. Gelan instalatu beharreko panel kopurua, batez beste, 5 eta 15 artekoa da DBH, Batxilergoa, LH eta unibertsitateko geletan. Hezkuntza-arloan gure bezero nagusiak ikastetxeen zuzendaritzak, udalen inbertsio-planak, unibertsitateetako administrazioak eta zarata handiko areto espezifikoak dira. Horrenbestez, sektore honek gure negozioaren **%45-50** inguru ordezkatzeko du.

Enpresa eta bulegoen segmentuan, open space bulegoak, coworking guneak eta espazio partekatuak gero eta zabalduago daudenez, zaratak eragin zuzena du produktibitatean. Datuen arabera, zaratak lan-errendimendua **%15-30 jaisten** du, eta langileen **%60k** zailtasunak dituzte kontzentratzen halako espazioetan. Gainera, Europako enpresen **%40k** zaratarekiko kexak jasotzen dituzte, arazoaren egunerokotasuna eta tamaina agerian utziz. Espainian **3,4 milioi** enpresa daude, eta horietatik **20.000k**

baino gehiagok **50** langile baino gehiago dituzte; horiei **30.000** coworking eta bulego partekatu gehitu behar zaizkie. Bezero potentzial nagusiak bulego handiak, call center-ak, coworking-ak eta ingeniaritza, diseinu eta programazioko enpresak dira. Espazio handietan, **20-40** paneleko instalazioak behar izaten dira. Hori dela eta, segmentu honek gure negozioaren **%25-30** ordezkatzeko du.

Etxebizitzaren segmentuak ere presentzia garrantzitsua du, SilenRoom ez baita lanerako edo ikasteko soilik, baizik eta etxeetan isiltasun akustikoa berreskuratzeko ere baliagarria delako. Espainian, biztanleen **%32k** zarata-arazoak dituzte etxean, eta **%18k** antsietatea edo depresioa lotzen du zaratarekin. Telelanaren gorakadak ere eragina izan du: langileek **%45** kontzentrazio-arazoak aipatzen dituzte etxeko zarategatik. Bezero nagusiak oposiziogileak, unibertsitateko ikasleak, telelaneko profesionalak eta familia numerosoak dira. Oro har, gela bakoitzak **4-8** panel behar ditu, eta etxebizitzaren segmentuak negozioaren **%20** inguru osatzen du.

Azkenik, segmentuen arteko laburpenak erakusten du hezkuntza kontzentrazioa eta distrakzioaren murrizketa direla premia nagusiak; enpresetan, produktibitatea eta estresa kudeatzea; eta etxebizitzetan, lanerako eta atsedenerako isiltasun egokia lortzea. Segmentu hauek aukeratu ditugu aldaketa neurgarria ahalbidetzen dutelako eta eguneroko premiei erantzuten dietelako, gainera, hobekuntza akustikoetarako aurrekontu propioak dituztelako. SilenRoom-ek balio erreal eta berehalakoa sortzen du: kontzentrazioa eta errendimendua hobetzen ditu, estresa murrizten du, eta espazio mental zein fisiko askoz osasuntsuagoa eskaintzen du.

SilenRoom-en merkatu-segmentu potentzialak

28.000



Espainiako hezkuntza-zentroak

20.000+



Bulegoak dituzten enpresa ertain eta handiak

%32



Zarata-arazoak dituzten etxebizitzak

SilenRoom-en merkatu-segmentu potentzialak

94.000



Euskadi – Unibersen lan egiten duten langileak

Euskadi – Bigarren Hezkuntzako eta Goi Mailako Ikasleak

38.000



Bulegoan lan egiten duten langileak (irekitako espazioa)

68.000



Espainia – Egunerokoan zaratak asaldatzen dituzten pertsonak

40% biztanleriaren (~19 milioi)